

ARRAIN ONTZIA

Teknika hau talde handietan erabiltzen da, denen artean erabakiak hartzeko. Taldeen ordezkariak gelaren erdian jarriko dira elkarrekin eztabaidatzeko, talde guztiak inguruan dituztela.

Arbel bat, taula bat edo kartoi mehe handi bat behar da adostutako erabakiak idazten joateko.

Lehenik eta behin, talde bakoitzak ordezkari bat aukeratuko du, bere jarrerak eta/edo interesak defenda ditzan. Eztabaidan ordezkariak bakarrik parte hartu ahal izango dute (ozen hitz egingo dute, jende guztiak eztabaida entzuteko moduan).

Taldeen ordezkariak gelaren erdian jarriko dira zirkulu bat osatuz, eta talde bakoitza bere ordezkariaren atzean, erabakiak nola hartzen diren ikusteko.

Taldea ez badago ados eztabaidaren norabidearekin, ordezkariari idatzizko mezu bat helaraziko dio (gehienez bi edo hiru idatz daitezke). Bestalde, taldeak oraindik eztabaidatu ez duen proposamen berriren bat aurkezten bada, ordezkariari minutu bat edo bi emango zaie beren taldeekin hitz egiteko.